



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA

ETXEBIZITZA SAILA

Ingurumen Salburuordetza

Ingurumenaren Administrazioaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,

PLANIFICACION TERRITORIAL Y VIVIENDA

Viceconsejería de Medio Ambiente

Dirección de Administración Ambiental

EBAZPENA, 2017ko uztailaren 10ekoa, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Abadiñoako Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualaren ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentua, I-12, I-13 eta I-14 industriaguneei dagokienez.

AURREKARIAK

2017ko martxoaren 23an, Abadiñoako Udalak Abadiñoako Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualaren ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa hasteko eskaera egin zuen, I-12, I-13 eta I-14 industriaguneei dagokienez —aurrerantzean, plana—, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko Legean (otsailaren 27ko 3/1998 Legea) eta ingurumen-ebaluazioari buruzko Legean (abenduaren 9ko 21/2013 Legea) xedatutakoari jarraikiz.

Eskaerarekin batera (dagokion inprimakiaren bidez egin da), planaren zirriborria (2016ko azarokoa, Ajuriaguerra Tres SLP enpresak egin) eta hasierako agiri estrategikoa (2016ko abendukoa, IMADE SL enpresak egin) daude.

2017ko apirilaren 3an, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuko (plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen du) 9. artikuluan ezarritako kontsulten tramitea egin zen. Administrazio publiko eta pertsona interesdun hauei egin zien kontsulta ingurumen-organoak:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza.
- Ura, Uraren Euskal Agentzia.
- IHOBE. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia.
- Ekologistak Martxan Bizkaia.

Bestalde, data horretan bertan, tartean dauden administrazio publikoen eta pertsona interesdunen eskura jarri ziren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean planaren zirriborria eta hasierako agiri estrategikoa, planaren gainean interesa leukaketenak identifikatzeko.

Dagokion araudian ezarritako epea amaituta, URA-Uraren Euskal Agentziaren ingurumen-edukiko erantzuna jaso da (espedientean dago horren emaitza).

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren helburua da ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketen planen ingurumen-ebaluazioa arautu behar duten oinarriak ezartzea, eta ingurumenaren babes-maila handia bermatzea, garapen jasangarri bat sustatzea helburu.

Halaber, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 42. artikulua arabera, ingurumen-inpaktuen ebaluazioek egoki bermatu beharko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: hautabide egokienak hautatu ahal izateko, plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko eraginei buruzko azterketa, betiere, kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1.a artikuluan xedatutakoa aplikatuz, administrazio publiko batek abian jarritako edo onetsitako planei eta programei ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar zaie, bai eta haien aldaketei ere, lege- edo arau-xedapen batek beharturik prestatu eta onartu badira, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuak baimentzeko etorkizuneko esparrua ezartzen badute eta arlo jakin batzuei erreferentzia egiten badiete, hala nola hiri- eta landa-lurraldearen antolamenduari eta lurzoruen erabilerari.

Otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak 46.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz, baterako ebaluazio bat egin behar da; hau da, arauaren I. eranskineko a) atalean jasotako planen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar da, eta ebaluatu beharreko plan horien artean daude, besteak beste, Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren aldaketak, ingurumenari ondorio adierazgarriak eragiteko modukoak badira. Arau berean xedatutakoaren arabera, ulertzen da plan bat edo plan baten aldaketa ingurumenari ondorio adierazgarriak eragiteko modukoa dela, legeari jarraituz, etorkizunean ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko zaien proiektuak baimentzeko esparrua ezartzen badu.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ohiko ingurumen-ebaluazioa hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organismoak ingurumen-azterlan estrategikoaren irismena zehaztea, eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egin ostean. Arau horrek 18.1 artikuluan zehazten du zer dokumentu erantsi behar zaizkion izapidea hasteko eskaerari. Aipatutako abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez dion guztian, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren (planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena) 8. artikulua hasierako dokumentuarekin batera eman behar den edukia zabaltzen eta osatzen du.

Amaitzeko, ingurumen-azterlan estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterlan estrategikoaren edukiri buruzkoak, bai eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziazko dokumentuaren edukiri eta ingurumen-iraunkortasunaren txostenaren edukiri buruzkoak, hurrenez hurren.

Hona arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostena aztertu da eta hauek guztiak ikusi dira: otsailaren 27ko 3/1998 Legea Orokorra (Euskal Herriko ingurugiroa babestekoa), abenduaren 9ko 21/2013 Legea (Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa), urriaren 16ko 211/2012 Dekretua (planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena), apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua (Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duena), urriaren 1eko 39/2015 Legea (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) eta urriaren 1eko 40/2015 Legea (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa) eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenen. Abadiñoko Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualaren ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentua formulatzea, I-12, I-13 eta I-14 industriaguneei dagokienez —aurrerantzean, plana—, jarraian dauden baldintzetan:

A. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasagarritasun-irizpideak.

IV. Ingurumen Esparru Programa 2020 izenekoaren helburu estrategikoetan eta jardueraildoetan oinarrituko da plana.

Horretaz gain, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko Lege Orokorrean bildutako irizpideak (otsailaren 27ko 3/1998 Legea) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuan bildutakoak jaso beharko ditu.

Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 2. artikulua aplikatuta, planaren ingurumen-ebaluazioa gidatuko duten garapen jasagarriaren printzipioak hauek izango dira:

- a) Lehendik ere artifizialdurik dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizaziotik babestuz.
- b) Habitatak eta espezieak, natura-ingurunea eta lotura ekologikoa zaindu eta hobetzea.
- c) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien mende bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- d) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, bai eta baliabidearen erabilera iraunkorra ere.
- e) Aldaketa klimatikoaren aurreko kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak eta egokitzeko neurriak integratuz.
- f) Arrisku naturalak gutxitzea.

Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterlanak kontuan hartu behar du proposatutako jardueretan sartzen direla ingurumen-helburu estrategikoak eta jasagarritasun-irizpideak, aipatutako garapen jasagarriaren printzipioetatik datozenak.

B. Eremu geografikoa eta ingurumen aldetik garrantzitsuak diren eremuak

Planaren xedea den eremua Abadiñoko industrialde bat da, Kanpazartik Arrasate eta Durango lotzen dituen N-636 errepidean zehar kokatua. Errepidearekiko paraleloa den 375 metroko zerrenda bat hartzen du, eta 200 metro inguru ditu hondoraino. Lursaila nahiko laua da eta bi ibai-ibilguk zeharkatzen dute: Zumelegi ibaiak –ondoren Ibaizabal bihurtzen dena– eta haren adarrak (69 eta 40 km² inguruko azalerako arroa dutenak, hurrenez hurren), eta Ursalto erreka (1,90 km² inguruko azalerako arroa duena).

Ingurumen-elementu nabarmenak hauek dira, besteak beste:

- Zumelegi ibaia eta Ursalto erreka.
- Batasunaren intereseko habitatak, 92/43/EEE Zuzentarauaren arabera. Identifikatutako habitaten artean Zumelegi ibaia lehentasunezkoztat jotzen da:

91E0*: *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* baso alubialak

6510: Altitude baxuetako sega-belardi txiroak (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*): Abeltzaintza-intereseko belardi artifizialak.

- Landaredia eta lurzoru-erabilerak: landaredi potentzialari dagokionez, batetik, ibai-ibilguen ertzetan haltzadi kantauriarra dago eta, bestetik, harizti azidofiloak eta harizti/baso mistoak daude. Gaur egungo landarediari dagokionez, hauek nabarmentzen

dira: haltzadi kantaurreak, belardiak eta labore atlantikoak; eta, neurri txikiago batean (0,01 ha), baso-sartzeak egindako eremuak.

- Mehatxupeko fauna: Zumelegi ibaia interes bereziko gunea da bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) kontserbaziorako (Bizkaiko Lurralde Historikoan espezie hori kudeatzeko planaren arabera –ekainaren 19ko 118/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua–). Era berean, lehentasunezko banaketa eremua da espezie hauentzako: gailurretako uhandrea (*Triturus alpestris*), baso-igel iberiarra (*Rana iberica*) eta Schreiber muskerra (*Lacerta schreiberi*).

Ingurumen-arrisku nagusiei dagokienez, honako hauek identifikatzen dira:

- Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua. Eremuaren % 54,20 lurzoria kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruaren inbentarioaren (irailaren 30eko 165/2008 Dekretuaren bidez onartua) barruan daude.
- Urpean gera daitezkeen eremuak: eremu horretarako proposatutako jarduketak Zumelegi ibaian uraldiak eragin ditzaketen uholde-eremuaren barruan daude (Zumelegi ibaiaren 100 eta 500 urteko errepikatze-denborak kontuan hartuta).

C. Jarduketak egiteko egokiak ez diren eremuak.

Ingurumenaren aldetik problematikoak diren eta gerora proposamenak gauzatzean zaindu beharko diren eremuak detektatu beharko ditu ingurumen-azterlan estrategikoak. Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzeko aukera emango duena.

Zehazki, nabarmendu behar da, urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuaren 40.5 artikuluan xedatutakoari jarraikiz –horren bidez, zenbait plan hidrologikoren berrikusketa onartzen da, hala nola Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren plana–, ezin dela baimendu I-14 guneari ibilgailu arinentzako gehitu zaion aparkalekua; izan ere, lurzoru urbanizaezina da eta uraldiak direla-eta urpean gera daitekeelako (Zumelegi ibaiaren 100 urteko errepikatze-denborak kontuan hartuta). Era berean, adierazi behar da I-12 gunean proposatutako beste aparkalekua eta I-13 guneari zabalkundea Zumelegi ibaian uraldiak eragin dezaketen uholde-eremuaren barruan daudela (500 urteko errepikatze-denborak kontuan hartuta), eta, haiek ezartzeko, urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuaren 40. eta 41. artikuluetan ezarritako zehaztapenak bete behar direla. Nolanahi ere, aparkalekuak uraldietan abisua eman eta ibilgailuak ateratzeko sistema bat izan behar du.

Halaber, eremuan badira kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak eta, historikoki, zenbait lursail hartu izan dituzte; hortaz, baliteke lursail horiek arriskutsuak izatea etorkizuneko erabiltzaileentzat edota ingurumenarentzat. Berezi aintzat hartuko behar da eraikin industrialen kokapena hartuko duen luraren ezaugarrien azterketa eta kontuan izan behar dira ekainaren 25eko 4/2015 Legean (Lurzoria kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko) ezarritako baldintzak.

D. Egindako aurretiazko kontsultetako erantzunen ingurumen-azterketa laburra.

Ingurumen-erakundeak erantzun hauek jaso dira:

- URA-Agencia Vasca del Agua: jakinarazi du ezin dela egin planean aurreikusita dagoen ibilgailu arinentzako aparkatzeko gune bat zoru urbanizaezinean eraikitzeke jarduketa, urpean gera daitekeen gune batean dagoelako. Urpean gera daitezkeen eremuetan egin beharreko gainerako jarduketek baldintza batzuk bete beharko dituzte. Era berean, eremu horretako ibai-ibilguetako jabari publiko hidraulikoari eragiten dioten jarduketei mugak jartzen dizkie.

E. Ingurumen-azterlan estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena.

Ingurumen-azterlan estrategikoak abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izango du, eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoarekin osatu beharko da. Aurrekoarekin bat etorritz, garatzen diren atalek honako eskema metodologikoari erantzun behar diote:

1. Edukia, helburuak eta egokiak diren beste plan eta programa batzuekin duten erlazioa.
2. Ingurumenaren egungo egoera.
3. Ingurumenean gerta daitezkeen eragin esanguratsuak.
4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak.
5. Alternatibak aukeratzeko prozesua.
6. Ingurumena zaintzeko programa.
7. Laburpen ez-teknikoa.

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da ingurumen-azterlan estrategikoak –aurrerantzean, azterlana– hurrengo alderdietan sakondu behar duela jarraian adierazten den zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

1. Edukia, helburuak eta egokiak diren beste plan eta programa batzuekin duten erlazioa

Azterlanak planaren helburu nagusien laburpen labur bat izango du, eta beste plan eta programa lotuekin dituzten erlazioei buruzko azterketa labur bat, betiere plan eta programa horiek sinergiak sortzen lagun badezakete, bai eta ingurumenaren gaineko ondorio kaltegarriak ere.

Plana aplikatzearen ondorioz planteatzen diren gai berriak deskribatuko ditu zehatz-mehatz azterlanak, baldin eta ingurumenaren gaineko ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzakete.

Azterlanak era espezifikoan justifikatu beharko du ebazpen honetako Lehenengoa A atalean jasotako ingurumena babesteko helburuak eta jasangarritasun-printzipio eta -irizpideak kontuan izan direla planaren onarpenean. Justifikazio hori bai arauetan bai planean bertan ezarritako adierazle eta muga erabileran oinarrituko da.

2. Ingurumenaren egungo egoera

Azterlanak ingurumenaren gaur egungo egoeraren alderdi garrantzitsuak deskribatu beharko ditu, era nabarmenean eragin diezaiekeen guneen eta planaren aplikazioa egiten ez bada izan dezakeen bilakaeraren ingurumen-ezaugarriak zehaztuz, klima-aldaketa kontuan izanik.

Era berean, garrantzitsua izan daitekeen edozein ingurumen-arazo identifikatu behar da, tartean, zehazki, ebazpen honen Lehenengoa B atalean jaso diren eta ingurumenaren aldetik nabarmenak diren edozer gunerekin erlacionatutakoak.

Era berean, lurraldearen ingurumen-unitate homogeneousen definizio bat gauzatuko da horien paisaia-ezaugarrien eta baliabide naturalen azterketa integratutik abiatuta.

Lehen aipatutako ingurumen-alderdiak era kartografikoan adierazi beharko dira, planaren izaera espezifikoarekiko eskala proportzionatuan.

Ingurumenaren gaur egungo egoeraren deskribapena egiteko, ingurumen-adierazleak erabili beharko dira; horretarako, Ingurumen Esparru Programaren¹ adierazleen oinarritzko panelean jasotakoak erabili ahaliko dira, bai eta lurraldeari eta ingurumenari buruzko Eustatenak ere, eta ebazpen honetako Lehenengoa A atalean adierazitako ingurumen-helburuen bilakaerari buruzko informazio garrantzitsua eman dezaketen beste batzuk.

Kontuan izan beharko dira, gutxienez, adierazle hauek:

- Lurzoruaren artifizializazioa: azalera artifizializatua guztizko azalerarekiko.
- Kalitatean edo kontserbazio-egoeran hobera egin duten habitat naturalen azalera.
- Kutsatuta egon daitezkeen eta erabilera berrietarako berreskuratuta dauden lurzoruen azalera.

Azterlanak aipatutako adierazleei buruzko datuak izan beharko ditu edo, halakorik ez badu, alderdi berdina adierazten dituzten beste adierazle batzuei buruzkoak, kasu bakoitzean datu zehatzak lortzeko izandako balizko zailtasunak justifikatuz. Era berean, azterlanak proposatzen diren beste adierazle batzuei buruzko datuak izan beharko ditu; hala, erreferentziako ingurumen-egoera bat definituko da ingurumena zaintzeko programa aplikatzeko.

3. Ingurumenean gerta daitezkeen eragin esanguratsuak

Atal honetan, ingurumenean eragin ditzakeen ondorio adierazgarriak aztertu beharko dira, honako alderdi hauek barnean hartuta: biodibertsitatea, biztanleria, gizakien osasuna, fauna, flora, lurra, ura, airea, kultura-ondarea (ondare historikoa barne), klima-faktoreak, klima-aldaketan izan dezakeen eragina (bereziki, planari lotutako karbono-aztarnaren ebaluazio egokia), ondasun materialak, paisaia eta faktore horien arteko interakzioa eta ekosistemek eskaintzen dituzten ingurumen-zerbitzuak ebaluatuz, kontuan har daitezkeen. Eragin horiek barnean hartu behar dituzte zeharkako efektuak, metaketak, sinergiak, epe labur, ertain eta luzerako eraginak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterakoak, positiboak eta negatiboak.

Ebazpen honen Lehenengoa B atalean jasotzen diren eta ingurumenaren alderik nabarmenak diren jarduerak garatzeak sortuko dituen inpaktuak identifikatu eta balioetsiko dira, eta identifikatutako inpaktuetatik, esanguratsutzat zein jotzen diren berariaz adierazi beharko da.

Planak etorkizuneko garapen gisa aurreikusitako eremuren bat era zehatzean garatzen duen kasuan, ingurumen-azterlan estrategikoak Inpaktu Akustikoaren Azterlan bat izan beharko du, urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren (EAEko kutsadura akustikoari buruzkoa) 37. artikuluan ezarritakoarekin bat.

4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak

Aurreko atalean identifikatutako ondorio garrantzitsu bakoitzerako horiek prebenitzeko, zuzentzeko edo, halakorik behar bada, konpentsatzeko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Ahal den heinean, garapen-tresna zehaztuko da eta bertan proposatutako neurrietako bakoitza ezarriko da.

¹ 2013ko Euskadiren ingurumen-profila, ingurumen-adierazle nagusiak.

http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/perfil_ambiental/eu_def/adjuntos/2013.pdf

Planaren barnean egonik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera behartutako proiektuak identifikatu beharko dira garapenaren baldintzak ezartzeko eta, hala badagokio, proiektuak gauzatzean sortutako eraginak gutxitzeko gidalerroak ezartzeko. Kontuan hartu beharko da, urtarilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuaren 43. artikuluko 5 zenbakian xedatutakoarekin bat etorritik, ez dela estaldurarik baimenduko 0,5 km²-tik gorako artoa duten ibai-tarteetan.

5. Alternatibak aukeratzeko prozesua

Alternatibak hautatzeko prozesuaren laburpen arrazoitu bat erantsiko da, bideragarritasun teknikoak, ekonomikoak eta ingurumen arlokoak eta planaren helburuekiko bat-etortzea eta proportzionaltasuna justifikatuko dituenak, batez ere ingurumen-helburuekikoak. Azterlan honetan ebaluazioa egiteko modua deskribatuko da, bai eta zailtasunak ere; esate baterako, eskatutako informazioa biltzean beharbada aurkitu diren gabezia teknikoak, edo ezagutza eta eskarmentu falta. Ebaluazio horren erreferentzia-esparrua plana aplikatu ezean (0 alternatiba) alderdi garrantzitsuek izan dezaketen bilakaera izango da.

6. Ingurumena zaintzeko programa

Azterlanak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du eta bertan plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Ingurumena zaintzeko programan adierazleak deskribatuko dira eta, behar izanez gero, ondorio garrantzitsuenen erreferentziako balioak, bai positiboak bai negatiboak.

Ingurumena zaintzeko programak azterlanean proposatzen diren adierazleak jaso beharko ditu, ebazpen honetako Lehenengo E.2 atala betetzeko, baita kasu bakoitzean, datuak biltzeko erabiliko diren periodikotasuna eta metodoak ere.

7. Laburpen ez-teknikoa

Azterlanak aurreko epigrafeen arabera emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat izango du; publikoak oro har ulertzeko moduko informazioa izango du, aztertutako alderdi guztiak landuko ditu eta, era berean, informazio grafikoa izango du, dokumentu autoaskia eta azterlanarekiko independentea izan dadin.

F. Jendaurreko informazioa eta kontsultak

Eragiten dien administrazio publiko eta interesdunentzako jendaurreko informaziorako eta kontsultarako epea gutxienez 45 egunekoa izango da. Gutxienez ebazpen honetan identifikatutako erakundeen iritzia jaso beharko du, hau da, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan ezarritakoaren arabera Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak kontsultatutako horiena.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 17. artikuluen arabera, gehienez ere hamabost hilabetekoa izango da azterlana eta arauaren 21. eta 22. artikuluetan aurreikusitako kontsultak egiteko eta informazio publikoaren prozedura betetzeko epea, irismeneko dokumentu honen erakunde sustatzaileari jakinarazten zaion egunetik aurrera.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. artikuluen arabera, azterlana kualifikazio profesional eta goi-mailako hezkuntzari buruzko arauen arabera behar besteko gaitasun teknikoak duten pertsonak egingo dute, eta Legearen eskakizunak betetzeko behar den kalitatea izango du.



Azterlanaren egileak identifikatu behar dira, haien titulazioa eta, hala badagokio, lanbide arautua adierazita. Identifikazioak izena, abizenak eta identitate-dokumentu nazionalaren kodea edo helburu berdinetarako balio duen beste dokumentu bat izango ditu. Gainera, amaiera-data eta pertsona horien sinadura jasoko dira. Horiek azterlanaren edukien eta informazioaren fidagarritasunaren erantzule izango dira, administrazioak frogagarri gisa emandako datuak alde batera utzita.

G. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

1. Ingurumen-adierazpen estrategikoaren eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentuek koherentzia egokia errespetatu beharko dute, bai haien artean baita aurretik aurkeztutakoenekin ere, halakorik bada, hartara erabakia hartu behar duten administrazio-organoen lana erraztuz eta ez eragotziz.
2. Arreta berezia jarri beharko da kasu bakoitzean dokumentu teknikoen atalak haien artean erlazionatzea ahalbidetzen duten datuak adieraztean (esaterako, atal batean planeko ekintzak deskribatzen badira eta beste batean ekintza horiek eragindako ingurumen-inpaktuak, bi kasuetan ekintzak izen berarekin aipatu beharko dira).
3. Beharrezkoa bada, datuak zein iturritatik lortu diren adierazi behar da.
4. Dokumentazio grafikoa eta kartografikoa sartu beharko da, behar bezala geo-erreferentziatua, behar duten ataletan.
5. Plano guztiak kodearekin eta izenburuarekin identifikatu behar dira. Halaber, honako hauek adierazi beharko dira: irudikatutako datuak zuzen interpretatzeko behar diren azalpenak eta sinboloak; eskala grafikoa eta zenbakizkoa, inprimatzeko formatua adierazita; sinadura eta noiz egin den.
6. Jatorrizko eskalatik murriztutako planoak aurkeztuz gero, zuzendu egin beharko da planoan jatorrian adierazitako eskala, aurkeztutako planoan oinarritutako neurketek ez dezaten akatsik izan.
7. Testuetan zehar aipaturiko eranskin, irudi, plano edo argazki guztiak dokumentazioarekin batera aurkeztuko dira. Erreferentzia horiek dagokion elementua erraz aurkitzeko moduan egingo dira, argi eta garbi.
8. Informazio jakin bat dokumentuetako atalen bat osatzeko edo zuzentzeko aurkezten bada, eta aldi berean espedientean zuzendu nahi den atala mantentzen bada, informazio berriak adierazi beharko ditu osatzearen edo zuzentzearen ondorioz jatorrizko dokumentuan ezeztatutzat edo ordezkaturat jo beharreko kapituluak, orrialdeak, epigrafeak, atalak, paragrafoak, esaldiak, koadroak, irudiak, planoak, eta abar. Aurreko informazioaren bat osatzen edo zuzentzen duen informazioak egoera horren berri eman beharko du hasieran. Eskaera bat zuzentzeko aipatutako jarraibideak jarraitzen ez badira, tramite gehigarri bat eska dezake kontraesankorrak edo inkongruenteak izan daitezkeen alderdiak argitzeko, horrek prozeduraren ebazpenean dakarren atzerapenarekin.
9. Eskaera IKS-eem sistemaren bidez aurkeztu beharko da, aplikatu daitezkeen eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean eskura daitezkeen fitxak eta formularioak erabilita, zehazki, helbide honetan:
http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-orokorra/eu/contenidos/informacion/guia_iks/eu_def/index.shtml

10. Dokumentu bat .pdf formatuan aurkezten denean, gehienez 10 MB izango ditu eta bilaketak egitea ahalbidetu beharko du. Luzera handiagoko dokumentuak zatitu egin behar dira sisteman txertatzeko.

11. Aurkeztutako dokumentazio guztiaren aurkibide oso bat txertatuko da, adierazitako ataletako bakoitza zein orrialdetan dagoen zehaztuta. Aurkibidea aurkeztean .pdf dokumentu baterako, adierazitako orrialde-zenbakia bat etorriko da orrialde hori topatzeko irakurketa programaren «Joan orrialde honetara» eremuan adierazi behar denarekin.

12. Dokumentu kartografikoak .pdf formatuan eta .shp formatuan entregatu beharko dira. IKS-eem sistemak oraindik ez duenez .shp formatua onartzen, planoen joko bat aurkeztuko da formatu horretan, euskarri digitalean, eta hori ingurumen-erakundeari bidaliko zaio ohiko bideak erabiliz.

13. Organo sustatzaileak datuak igortzean datu pertsonalak babesteari buruzko arautegia betetzen dela bermatu beharko du beti.

Bigarrena.- Abadiñoko Udalari ebazpen hau jakinaraztea.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailaren 10a


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA
DEPARTAMENTO DE
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA
Ivan Pedreira Lanchas
Ingurumen Administrazioaren zuzendaria